

## Autonomia, sozialistak eta udalak (1)

Deia, 1983-08-07.

Barne-Estatutuetan erakunde federala aukeratu duten PSOeko sozialistek, "Autonomia" dute ahoan eta zentralismo jakobinoa buru-bihotzean; Fraga-ren espainol-nazionalismoak ez dio Gonzalezenari irabaziko; biak daude orain Udaletako idazkariak ere Madrilen aukeratu behar direla esijitzen.

Zertan datza, beraz, "A" handiaz idazten duten Autonomia, herri txikienetako idazkariak ere Madrilen aukeratu behar badizkigute? Erdaldunak, seguru?

Irtenbentore-bijilanteak ere bai!

Esan, orduan, zertarako ditugun gure Diputazio Foralak eta gure Jaurlaritza Autonomoa! Ez ahal dira hemengo bijilantziarako nahiko dagoeneko hemen tokatzen zaigun Ordezkarri Nagusia eta propinaz ezarri dizkiguten hiru gobernadore, eta nahi ez ditugun gainontzeko guardia zibil, polizia (uniformedun, uniforme gabeak eta txibato agregatuak) eta gure erakunde guztietan transizioak eredentziz utzi dizkigun Franco denborako funtzionariak eta gainontzeko politiko espainolistak gainezka...!

Nork bijilatuko du hemen handik jarri edo bidali diguten hainbeste mila bijilante?!

Hemen ere esan genezake gazteleraz esaten den esangaitz edo ahokorapilo bera erabiliaz: bijilantea bijilatuko duen bijilatzailea, bijilatzaile kaiku ederra izango duk.

Bada Espainiako Estatu honetan oker jokatzen duenik demokraziarik ezin eraiki ahal izateko.

Beste giza-ekintza guztietan bezala, politikan ere beharrezkoa da, funtsezko zerbait eraikiko bada, demokratikoak diren gizon eta instituzioen arteko konfidantza baten oinarria, eta Espainian ez da lore hau erraz ematen.

Arrosa ez da, aise ikusi ahal izan dugunez.

Gero eta argiago ikusten ari gara nazional-sozialista horiekin hemen ezin izango dela *deszentralizazio* soila ere jaso. Hemen ere agintea delegatu egin behar baita, eta ezkerre ere ez da liberaltasun honetarako gauza.

Eta erraza da!

Sistema honen funtsa honetan datza: *beheko mailak erabaki dezakeenik ez du goikoak erabakiko*. Erraza da esatea, eta lojika errazekoa ulertzea, baina oinarrizko konfidantza zabal hau ematen ez den herrietan nekez sor daiteke Franco-Pinochet-Castroren sistematik kanpora dagoen ezer. Pena da Francopetik irten berri-berrian *Gerra* batek esate baterako, erakusten duen agintekeriarako jite despota hori!

Zertan dago gizon moeta horien ahulezia?